

Burlatako Udalaren Adierazpen Institutuzionala, Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna eta Nafarroako Ijito Komunitatearen Eguna direla eta

Apirila data seinalatua da Nafarroako egutegian, *Ijito Kulturaren Hilabetea* ospatzen baita. Hainbat dira data horren garrantziaren arrazoiak: lehenik, apirilaren 8a Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna delako; bigarrenik, 1990eko apirilaren 14an Sabcas, nafar ijito unibertsal nagusia, hil zelako; eta, azkenik, apirilaren 27an ijitoak Nafarroako Erresumara iritsi zireneko data ospatzen delako; izan ere, 1435. urtean, Tomas, Egipto Txikiko Kondea, 50 laguneko talde batekin batera, Erriberriko Gazteluan jaso zuen Nafarroako Blanca erreginak, Nafarroako Artxiboan dagoen dokumentu batean egiaztatzen den bezala.

2005ean, Nafarroako Parlamentuak lehen adierazpen politikoa egin zuen apirilaren 8an, Ijito Herriaren Nazioarteko Egunean. Urte hartatik, Nafarroako Parlamentuak etengabeko adierazpen eta harrera instituzionalak egin ditu. 2007an, Nafarroako Gobernuak apirilaren 27a ezarri zuen Nafarroako Ijito Komunitatearen Egun gisa, eta orduz geroztik hainbat ekitaldi egin dira horren harira. 2012tik aurrera, Sabcasen jaiotzaren mendeurrena zela eta, Apirila Ijito Kulturaren Hilabetea deitzen hasi zen.

Nafarroako Ijito Erakundeek gai izan behar dute beren herriaren arreta erakartzeko, eta inklusio, protagonismo eta ahalduntze-prozesuan urratsak ematea lortzeko; familien arreta ere, hezkuntzak eta prestakuntzak duten garrantziaren gainean. Eskubideak ongi defendatzeko era bat da, eta bizitzak eta gizarteak une bakoitzean eskatzen dituzten betebeharrak betetzeko modurik onena. Ahalegin horrekin batera, politika argiak egin behar dira, ekitatea sustatzeko eta desberdintasunen, diskriminazioaren eta antigitanismoaren aurka borrokatzeko.

Horregatik guztiagatik, Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna eta Nafarroako Ijito Komunitatearen Eguna direla-eta, honako Adierazpen Institutuzional hau onartzea proposatzen da:

1. Burlatako Udalak uste du Nafarroako ijito komunitatea agenda politikoan lehentasuntzat hartu behar dela, Europako erakundeek eta Ijito Herriaren Berdintasunerako, Inklusiorako eta Partaidetzarako 2021-2030 Estrategiak gomendatzen duten bezalaxe. Lehentasunezko helburua da osasunean, hezkuntzan, enpleguan eta etxebizitzan eragiten duten desberdintasunak murriztea, besteak beste, arreta berezia jarriz gazterian eta emakume ijitoengan, eta ijitoen elkarte-mugimenduari balioa emanez.
2. Burlatako Udalak uste du ijitoenganako planek eta estrategiek behar besteko baliabideak izan behar dituztela, denboran behar adina intentsitatearekin eta jarraitutasunekin ezarri ahal izateko, eta ijito komunitatearen parte-hartze aktiboa erraztu behar dutela.
3. Burlatako Udalak konpromisoa hartzen du, ijito erakundeekin lankidetzan, kulturen arteko bizikidetzak garatzeko politikak bultzatzeko, elkar ezagutzuz eta aitortuz, bai eta ijitoen parte-hartzea eta protagonismoa ere.

Ijito Herriaren kulturaren eta historiaren berezitasun espezifikoak kontuan hartzen dituzten politikak, bai eta antigitanismo eta Arrazakeria eta diskriminazio-egoerak salatzen dituztenak ere.

4. Burlatako Udalak Ijito Herriaren bandera jarriko du udaletxeko balkoian apirilaren 8aren (Ijito Herriaren Nazioarteko Eguna) eta apirilaren 27aren (Nafarroako Ijito Komunitatearen Eguna) artean, ijitoei errekonozimendu gisa, bereziki Burlatan bizi direnei.

Burlata, 2024ko martxoaren 27a

Declaración Institucional del Ayuntamiento de Burlada con motivo del Día Internacional del Pueblo Gitano y del Día de la Comunidad Gitana de Navarra

Abril es una fecha señalada en el calendario de Navarra, ya que se celebra el *Mes de la Cultura Gitana*. Son varias las razones para la importancia de esta fecha: la primera porque el 8 abril es el Día Internacional del Pueblo Gitano; la segunda porque el 14 de abril de 1990 falleció Sabicas, gitano navarro universal por excelencia; y en tercer lugar, porque el 27 abril se conmemora la fecha de la llegada de los gitanos y gitanas al Reino de Navarra, cuando en el año 1435 Tomás, Conde de Egipto Menor, acompañado de un grupo de 50 personas, fue recibido en el Castillo de Olite por la reina doña Blanca de Navarra, como así se constata en un documento que se encuentra en el Archivo de Navarra.

En 2005, el Parlamento de Navarra realizó la primera declaración política con motivo del 8 de abril, Día Internacional del Pueblo Gitano. Desde ese año el Parlamento de Navarra ha realizado continuas declaraciones y recepciones institucionales. En 2007, Gobierno de Navarra instituyó el 27 de abril como Día de la Comunidad Gitana de Navarra, y desde entonces se han venido realizando actos por este motivo. A partir de 2012, con motivo del centenario del nacimiento de Sabicas, se empezó a denominar a Abril como el *Mes de la Cultura Gitana*.

Las Entidades Gitanas de Navarra tienen que ser capaces de llamar la atención de su pueblo, y conseguir dar pasos en su proceso de inclusión, protagonismo y empoderamiento; la de las familias sobre la importancia que tiene la educación y la formación para el desarrollo como persona, como ciudadana/o y como gitana/o. Es una manera de defender bien los derechos y la mejor forma de cumplir con las obligaciones que la vida y la sociedad exigen en cada momento. Dicho esfuerzo debe verse acompañado por políticas claras que fomenten la equidad y luchen contra las desigualdades, la discriminación y el antigitanismo.

Por todo ello, con motivo del Día Internacional del Pueblo Gitano y el Día de la Comunidad Gitana de Navarra se propone la aprobación de la siguiente Declaración Institucional:

1. El Ayuntamiento de Burlada considera que debe incluirse a la comunidad gitana navarra en la agenda política como una prioridad, como así lo recomiendan las instituciones europeas y la *Estrategia para la Igualdad, Inclusión y Participación del Pueblo Gitano 2021-2030*, con el objetivo prioritario de disminuir las desigualdades que afectan en los ámbitos de la Salud, la Educación, el Empleo y la Vivienda, entre otros, poniendo especial atención en la juventud y las mujeres gitanas, y poniendo en valor al movimiento asociativo gitano.
2. El Ayuntamiento de Burlada estima que los planes y estrategias hacia la población gitana tienen que estar dotados de medios suficientes, para que se puedan implementar con la suficiente y necesaria intensidad y continuidad en el tiempo, y tienen que facilitar la participación activa de la comunidad gitana.

3. El Ayuntamiento de Burlada se compromete a impulsar políticas, en colaboración con las Entidades Gitanas, para el desarrollo de la convivencia intercultural desde el mutuo conocimiento y reconocimiento, así como de la participación y protagonismo de los gitanos y gitanas. Políticas que tengan en cuenta las particularidades específicas de la cultura e historia del Pueblo Gitano, así como la denuncia de las situaciones de antigitanismo y de cualquier otra forma de racismo y discriminación.

4. El Ayuntamiento de Burlada colocará en el balcón consistorial la bandera del Pueblo Gitano entre las fechas del 8 de abril, día internacional del Pueblo Gitano, y el 27 de abril, día de la Comunidad Gitana de Navarra, a modo de reconocimiento a los gitanos y gitanas, en especial a aquellos que residen en Burlada.

Burlada a 27 de marzo de 2024